**ADINEKOENTZAKO OSTATU ZERBITZUAREN FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO BARNE-ARAUAK: TUTORETZAPEKO APARTAMENTUAK**

**ZIOEN AZALPENA**

**Gizarte Zerbitzuei buruzko 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legea**ren helburua honako hau da: Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan gizarte-zerbitzuen eta -prestazioen zerbitzuetarako eskubidea sustatu eta bermatzea, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema unibertsala araututa eta antolatuta, eta prestazio eta zerbitzuetarako sarrera eskubide subjektibo gisa ezarrita.

**Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Eusko Jaurlaritzako Dekretua**k arautu zituen prestazioen eta zerbitzuen betekizunak eta irizpideak (II. kapitulua), sarrera-prozedurak (III. kapitulua) eta edukia (IV. kapitulua); horrela, aipatutako 12/2008 Legearen eskubide subjektiboa zehaztu eta finkatu zuen.

**185/2015 Dekretuaren I. eranskinak** arautzen du pertsona nagusientzako ostatu zerbitzua, eta bi modalitate ezartzen ditu: **apartamentuak eta etxebizitza komunitarioa**.

Getxoko Bihotz Sakratuaren Udal Egoitzaren Artezkaritza Kontseiluak egoitzaren barne araubidearen erregelamendua 2017ko maiatzaren 23ko 15/2017 Erabakiaren bidez onartu zuen, eta BAOn argitaratu zen 2017ko uztailaren 28an. Araudi horren barruan sartzen da **etxebizitza komunitarioa**, Getxoko Bihotz Sakratua Udal Egoitzan eman beharreko zerbitzu moduan, baita haren **arauketa** ere.
Getxoko Udalak 2019ko uztailaren 24an egindako saioan behin betiko onetsi zen nagusientzako ostatu zerbitzuaren **araudia.**

**NORMAS DE REGIMEN INTERNO DE FUNCIONAMIENTO DEL SERVICIO DE ALOJAMIENTO PARA PERSONAS MAYORES: APARTAMENTOS TUTELADOS**

**EXPOSICIÓN DE MOTIVOS**

La **Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales** tiene por objeto promover y garantizar en el ámbito de la CAPV el derecho a las Prestaciones y Servicios Sociales mediante la regulación y ordenación de un Sistema Vasco de Servicios Sociales de carácter universal configurando el acceso a las prestaciones y servicios como un derecho subjetivo.

El **Decreto 185/2015, de 6 de octubre, del Gobierno Vasco, de Cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales,** regula los requisitos y criterios (Capítulos II), los procedimientos de acceso de acceso (Capítulo III) y el contenido de cada prestación y servicio (Capítulo IV) dando contenido y delimintado el derecho subjetivo proclamado en la citada Ley 12/2008.

El **Anexo I al Decreto 185/2015**, regula el Servicio de alojamiento para personas mayores estableciendo dos modalidades: **los apartamentos y la vivienda comunitaria**.

El Consejo Rector de la Residencia Municipal Sagrado Corazón de Getxo aprobó el reglamento de régimen interior de la propia residencia mediante acuerdo 15/2017 de 23 de mayo de 2017, siendo publicado en el BOB nº 144 del 28 de julio del 2017. Dicho reglamento incluye la **vivienda comunitaria** como uno de los servicios a prestar en la Residencia Municipal Sagrado Corazon de Getxo y **la regulación** del mismo.
El Pleno del Ayuntamiento de Getxo en sesión celebrada el 24 de julio de 2019 adoptó la aprobación definitiva del **Reglamento** de

alojamiento para personas mayores.

Araudi horren Laugarren Tituluko 21. artikuluak, **Funtzionamendu arau orokorrak**, honako hau ezartzen du:

*"Zerbitzuaren erabiltzaileek egunerokotasunean funtzionamenduaren barne araubidean ezarritako arauei jarraituko diete.*

*Araudi hau indarrean sartu eta urtebetera, Getxoko Udalak **funtzionamenduaren barne araubidea egin eta onartuko du**, erabiltzaileen partaidetzarekin".*

En dicho Reglamento en su Título Cuarto, artículo 21- **Normas generales de funcionamiento**, se establece:

*"Las personas usuarias del servicio se regirán en su funcionamiento diario por las normas establecidas en el Régimen interno de funcionamiento.*

*El ayuntamiento de Getxo procederá, en el plazo de un año a contar desde la fecha de entrada en vigor del presente Reglamento y con la participación de las personas usuarias, a la **elaboración y aprobación del Régimen interno de funcionamiento**".*

Honen xedea da adineko pertsonentzako ostatu zerbitzuaren **tutoretzapeko** apartamentuaren modalitateko funtzionamendurako **barne-arauak** onestea. Etxebizitza komunitarioaren kasuan, Getxoko Jesusen Bihotzaren Udal Egoitzaren Araudian xedatutakoaren arabera arautuko da.

Es objeto de la presente, la aprobación de las **normas de régimen interno** de funcionamiento del servicio de alojamiento para personas mayores en su modalidad de **apartamento tutelado**. En el caso de la vivienda comunitaria, se regirá por lo dispuesto en el Reglamento de la Residencia Municipal Sagrado Corazón de Getxo.

## I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

## CAPITULO I.- DISPOSICIONES GENERALES

### 1. artikulua.- Xedea:

Adineko pertsonentzako ostatu zerbitzuaren tutoretzapeko apartamentuaren modalitateko funtzionamendurako barne-arauen helburua da tutoretzapeko apartamentuetako egoiliarren bizikidetza errazteko irizpideak eta gizarte zerbitzuekiko **erlazioa** arautzea.

Nahitaez bete behar dituzte tutoretzapeko apartamentuetan bizi diren pertsona guztiek.

### Artículo 1º.- Objeto

Las Normas de régimen interno de funcionamiento del servicio de alojamiento de personas mayores, en la modalidad de apartamento tutelado, tienen como objeto organizar los **criterios** que faciliten la convivencia de las personas residentes en los apartamentos tutelados y regulen su **relación** con los servicios sociales.

Son de obligado cumplimiento para todas las personas residentes en los apartamentos tutelados.

### 2. artikulua.- Ezaugarriak

Tutoretzapeko apartamentuak etxebizitza autonomoen multzoa dira, banakakoak eta/edo bikoitzak, beste ekipamendu sozial batzuen ondoko eraikinetan kokatuak. Gela

### Artículo 2º.- Características

Los apartamentos tutelados son un conjunto de viviendas autónomas, unipersonales y/o dobles, ubicadas en un edificio junto a otros equipamientos sociales. Compuestos de una

bikoitz bat, egokitutako komun bat eta sukalde-egongela bat dituzte. Etxetresna elektrikoak eta altzari funtzionalak dituzte, eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak egiteko.

habitación doble, un baño adaptado y una zona de cocina-estar. Están equipados con electrodomésticos y dotados de mobiliario funcional para la realización de las actividades básicas de la vida diaria.

Helburua da adineko pertsonak bere ohiko inguruan eta eremuan jarraitzea eta oinarrizko beharrizanak estalita izan ditzan bermatzea. Horrez gain, komunitateko partaidetza bultzatzen da.

Su finalidad es mantener a la persona mayor en su entorno y medio habitual de vida, garantizando la cobertura de sus necesidades básicas y fomentando su participación en el entorno comunitario.

Apartamentuetako gune komunak horien berezko funtzioetarako erabiliko dira, eta ezartzen diren ordutegiak eta funtzionamendu arauak errespetatuko dira.

Las zonas comunes de los apartamentos serán utilizadas para las funciones que le son propias respetando los horarios y normas de funcionamiento que se determinen.

## II. KAPITULUA.- ERABILTZAILEAK

## CAPITULO II.- LAS PERSONAS USUARIAS

Adinekoentzako ostatu-zerbitzuaren Erregelamenduan ezarritakoaren arabera, tutoretzapeko apartamentuak 65 urte edo gehiago dituzten eta mendekotasun egoeran (1. maila) dauden pertsonei zuzenduta daude, baldin eta, erreferentziazko profesionalaren balorazioari jarraikiz, ostatu alternatiba baten beharra badaukate, epe luzerako edo modu iraunkorrean, ez daukatelako ostatu alternatiba egokirik edo bizikidetzarekin nahiz isolamenduarekin lotutako arazoak dituztelako.

De conformidad con lo establecido en el Reglamento del servicio de alojamiento para personas mayores los apartamentos tutelados están destinados a personas de 65 años o más en situación de dependencia (grado 1) que, según la valoración del/la profesional de referencia, requieran una alternativa de alojamiento, de larga estancia o permanente, por carecer de una alternativa de alojamiento adecuada y/o tener problemas de convivencia o aislamiento.

### 3. artikulua.- Erabiltzaileen eskubideak baliatzea

### Artículo 3º.- Ejercicio de los derechos de las personas usuarias

Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legean eta ostatu-zerbitzuaren udal-erregelamenduan jasotako eskubideak baliatuz, erabiltzaileei dagokie

En ejercicio de los derechos recogidos en la Ley 12/2008 de Servicios Sociales y en el Reglamento municipal del servicio de alojamiento, corresponde a las personas usuarias

1.- Apartamentuan bizitza pribatuaz gozatzea, zerbitzuak behar bezala funtzionatzeko beharrezko mugen baitan.

1.- Disfrutar de una vida privada en el apartamento, dentro de los límites necesarios para el buen funcionamiento del servicio.

2.- Gune komunak erabiltzea.

2.- Utilizar las zonas comunes.

3.- Apartamentua eta ekipamendua erabili eta gozatzeko baldintza egokietan jasotzea

3.- Recibir el apartamento y su equipamiento en condiciones adecuadas para su uso y

disfrute.

4.- Okupatzen duen apartamentuko sarrerako eta trastelekuko giltzak izatea. Ez du aldatzeko baimenik izango, salbu eta hausten badira. Horretarako, Getxoko Udalaren berariazko baimena beharko da. Erabiltzaileak ezingo dizkie udal apartamentuko giltzak eman familiakoei, lagunei etab., Getxoko Udalaren berariazko baimena izan ezean.

4.- Disponer de llaves de la puerta de acceso y del trastero del apartamento que ocupa, no estando autorizado a cambiarlas, salvo en caso de rotura, y con autorización expresa del Ayuntamiento de Getxo. La persona usuaria no podrá entregar las llaves del apartamento municipal que ocupe a familiares, amistades, etc., sin la autorización expresa del Ayuntamiento de Getxo.

5.- Apartamentuaren barruan senideen eta lagunen bisitak jasotzea egunean zehar (08:00etatik 24:00etara). Gela ezingo da partekatu, denbora-tarte batez ere ez, salbu eta erabiltzailea gaixorik baldin badago eta Gizarte Zerbitzuen oniritzia baldin badauka.

5.- Recibir visitas, dentro del apartamento de familiares y amigos durante el día (de 8:00 a 24:00 horas), no pudiendo utilizar el apartamento para la cohabitación, aunque sea temporal, por parte de éstos, salvo en caso de enfermedad de la persona usuaria y con el visto bueno de los Servicios Sociales.

6.- Apartamentuko erabiltzaileak borondatez jarri ahal izango ditu itxura pertsonalizatua emateko apaingarriak.

6.- La persona usuaria del apartamento podrá de forma voluntaria instalar en el mismo aquellos objetos decorativos que le confieran un aspecto personalizado.

7.- Salbuespenez eta aurrez Getxoko Udalaren baimena jasota, apartamentuko erabiltzailea tutoretzapeko apartamentuan sartu baino lehenagotik zituen etxeko animaliekin bizi ahal izango da. Erabiltzailea izango da etxeko animaliak ondasunei nahiz pertsonei eragindako balizko kalte edo galeren erantzulea.

7.- La persona usuaria del apartamento podrá de manera excepcional y previa autorización del Ayuntamiento de Getxo, residir en el apartamento tutelado con los animales de compañía que tuviera antes de su entrada. La persona usuaria será responsable de los daños o perjuicios que pudiera ocasionar el animal de compañía tanto en bienes como en personas.

8.- Erabiltzaileek Gizarte Zerbitzuek ezarritako erkidegoko bileretan parte har dezakete eta Getxoko Udalaren aurrean ordezkatuko dituzten pertsonak hautatzeko.

8.- Las personas usuarias podrán participar en las reuniones de comunidad que establezcan los Servicios Sociales y elegir a las personas que han de ostentar su representatividad ante el ayuntamiento de Getxo.

9.- Erabiltzaile guztiek daukate eskubidea tutoretzapeko apartamentuen funtzionamenduari buruzko iritziak adierazteko, hobeto funtzionatzeko nahi beste iradokizun egiteko zein egokitzat jotzen dituzten kexak edo beharrizanak azaltzeko. Horretarako, oharrak, kexak eta iradokizunak egiteko sistema bat egongo da erabiltzaileen eskura.

9.- Todas las personas usuarias tienen derecho a manifestar sus opiniones sobre el funcionamiento de los apartamentos tutelados, plantear cuantas sugerencias crean convenientes para su mejor marcha, así como exponer aquellas necesidades o quejas que consideren oportunas. Para ello, existirá un sistema de avisos, quejas y sugerencias a disposición de las personas usuarias.

10.- Tutoretzapeko apartamentuak baliabiderik egokiena izateari uzten dionean arretaren jarraipena bermatuta izateko eskubidea.

10.- Derecho a que le sea garantizado el continuo de atención cuando el apartamento tutelado deje de ser el recurso más adecuado.

**4. artikulua.- Erabiltzaileen betebeharrak baliatzea**

**Artículo 4º.- Ejercicio de los deberes de las personas usuarias**

Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legean eta ostatu-zerbitzuaren udal-erregelamenduan jasotako betebeharrak baliatuz, erabiltzaileei dagokie

En cumplimiento de los **deberes** recogidos en la Ley 12/2008 de Servicios Sociales y en el Reglamento municipal del servicio de alojamiento, las personas usuarias deberán:

1.- Elkarrekiko errespetuan eta gainerako erabiltzaileekiko tolerantzian oinarritutako jarrera izatea erabiltzaileekin eta Gizarte Zerbitzuekin, beharrezkoa baita bizikidetza egokia izateko.

1.- Observar una conducta basada en el mutuo respeto y tolerancia con el resto de personas usuarias y con los Servicios Sociales, necesaria para una convivencia adecuada.

2.- Garaiz ordaintzea, bankuko helbideratze bidez, apartamentuetan egoteagatik udalak dagokion ordenantzan finkatutako zenbatekoa. Horrez gain, udalak hala zehaztuko balu, uraren kontsumoarekin, energiarekin, zaborrarekin eta estolderiarekin lotutako gastuen dagokion zenbatekoa ere ordainduko du. Erabiltzaileak bere diru-sarreretan gertatzen den edozein aldaketaren berri eman beharko du, tasa egoera berriari egokitze aldera.

2.- Abonar puntualmente, mediante domiciliación bancaria, el importe de la cantidad que por su estancia en los apartamentos haya sido fijada por el Ayuntamiento en la Ordenanza correspondiente. Igualmente, y si así lo determinase el Ayuntamiento, abonará el importe que le corresponda por consumo de agua y energía, basura y alcantarillado. La persona usuaria estará obligada a comunicar cualquier cambio que se produzca en relación con sus ingresos, a fin de adaptar la tasa a la nueva situación.

3.- Gizarte Zerbitzuek eskatutako dokumentazioa aurkeztea.

3.- Presentar aquella documentación que se requiera por parte de los Servicios Sociales.

4.- Ukorik ez egitea eskura duen eta ostatuaren beharrizana asetzen duen edozein baliabide publiko edo pribaturi.

4.- No rechazar cualquier recurso público y/o privado al que pudiera tener acceso y de cobertura a la necesidad de alojamiento.

5.- Getxoko Udalaren baimena daukan pertsona orori apartamentuan sartzen uztea eta hori erraztea.

5.- Permitir y facilitar el acceso al apartamento a todas aquellas personas que fueran autorizadas por el Ayuntamiento de Getxo.

6.- Apartamentu aldaketak onartzea, udalak dituen ekipamendu ezberdinen artean edo horien baitan, bai eta ostatu zerbitzuaren modalitateko aldaketak ere.

6.- Aceptar los cambios de apartamento, dentro o entre los distintos equipamientos que posea el Ayuntamiento y el cambio en la modalidad de servicio de alojamiento.

7.- Gizarte Zerbitzuei jakinaraztea 7 egun baino gehiagotan gaua apartamentutik kanpo igaroko bada. Ezin izango da apartamentuetatik kanpo egon hogeita hamar egun baino gehiagoz jarraian edo, jarraian izan gabe ere, urtean berrogeita bost egun baino gehiagoz, salbu eta udalak berariaz baimendu badu eta arrazoia justifikatuta badago.

7.- Comunicar a los Servicios Sociales la pernocta fuera del apartamento por un periodo superior a 7 días. Las ausencias de los apartamentos no podrán exceder de treinta días consecutivos o cuarenta y cinco discontinuos por año, salvo autorización municipal expresa, y por causa justificada

8.- Apartamentua, instalazioak eta altzariak higiene eta kontserbazio egoera bikainean izatea eta Gizarte Zerbitzuei sartzeko baimena ematea garbitasunaren inguruko eta instalazioaren funtzionamenduaren inguruko ikuskapenak egiteko. Erabiltzailea izango da erantzulea, eta, halaber, udal ondasun edo instalazioetan eragindako balizko kalteengatiko galerak ordaindu beharko ditu.

8.- Mantener el apartamento, sus instalaciones y el mobiliario en perfecto estado de higiene y de conservación, permitiendo el acceso, a los Servicios Sociales para realizar inspección de limpieza y de funcionamiento de las instalaciones. La persona usuaria será responsable y deberá abonar asimismo, en su caso, los posibles perjuicios por daños en los bienes o instalaciones municipales que haya podido causar.

9.- Apartamentuko erabiltzaileek apartamentuaren barruan eguneroko zereginak gauzatzeko betebeharra daukate, eta udalak ezarritako funtzionamendu arauak errespetatu behar dituzte. Apartamentuen barruan berariaz debekatuta dago horien berezko jarduerak ez direnak egitea.

9.- La persona usuaria del apartamento, tiene la obligación de realizar dentro del mismo las tareas cotidianas de la vida diaria, obligándose a respetar las normas de funcionamiento, establecidas por el Ayuntamiento. Dentro de los apartamentos se prohíbe expresamente la realización de actividades que no sean propias de éstos.

10.- Apartamentuen ohiko erabileragatik sortutako konponketa eta gastu txikiak ordaintzea.

10.- Costear las pequeñas reparaciones y gastos que se ocasionen por el normal uso de los apartamentos.

11.- Erantzukizun zibileko asegurua izatea.

11.- Disponer de un seguro de responsabilidad civil.

12.- Gizarte Zerbitzuei giltzen kopia bat ematea, edozein arrazoirengatik apartamentuko edo trastelekuko sarrailaren bat aldatu beharko balitz ere.

12.- Entregar a los Servicios Sociales una copia de llaves en caso de que por cualquier circunstancia se hubiera visto obligado a cambiar alguna cerradura de su apartamento o del trastero.

13.- Oro har, Getxoko Udalak emandako jarraibideak aintzat hartu eta betetzea.

13.- En general, asumir y cumplir las instrucciones emanadas del Ayuntamiento de Getxo.